

BARRREN

1998ko otsailaren 6a
VI. urtea - 224. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

IRITZIA
Jon Suarez

ERREPORTAIA
Santa Eskeko
ohitura
baserrietan eta
kalean


GEHIGARRIA
Kale zulotik
baserrira

BERBETAN
Luis Conde,
Injinerutza
ikasketetan
promozioko lehena

KULTURA
Elgoibarko Izarra
Idaz Lehiaketen
sari banaketa

GAZTAROA
San Juan Bosco
argazkitan

Santa Ageda Usadio zaharren legean



"Dios te Salbe ongi-etorri arratsaldeon daigula, legearekin kunpli dezagun Santa Ageda bezperan"

Azkue argaz-
rigintza



Muruamendiaraz
gozodenda



Egin ezazu
ahaztezina

Astigarraga
loradenda



Ikus optika




Iriondo
kirolak

Iosu bitxidenda



Bazar desde 100



Pitxintxu



Mimox loradenda



Leizabe elek-
tragailuak



Aranburu bitxidenda

Elgoibartasunaz edo



JON SUAREZ

Gaur, telefonoz deitu dizu BARRENeK Bitorixara. Eta galdetu dizu ea prest egongo zinatekeen astero gainetik irakurtzen duzun aldizkarian aldizka zerbait kontatzeko. Baina eta porru artean, azkenean baietz erantzun duzu, eta telefonoa utzi duzunerako galdera batek ito zaitu ia: “zer arraio kontatuko diet nik hemendik han ez dakitenik?”

Baina azkenean paper zuriari adarretatik oratu eta oroimena oroimenez janztea erabaki duzu. Laster ohartu zara ordea, zure haurtzaro eta gaztaroko kontuak hutsal gertatuko zaizkiola irakurleari eta, gauza “serioagoen” bila, buruari eraginez, bideoteka, hemeroteka, irratsaioei hautsak astindu dizkiezu.

Eta trumilka etorri zaizkizu han eta hemen irakurri eta entzundakok, nahas-nahasian: Udalak Mazzantiniren erretratua erosi duela, txurigorritz janzten den horren golak, Jaiotza famatua, bahitutako Mahai Nazionalaren bozeramailea, gasteiztar bat bigarren gelditu deneko krosa, herritar pare baten liburu argitaratu berriak, Modottiren argazki erakusketa, zure bertsolari kuttunen bertso saioa, arituaren arituz irekitako Gaztetxea, Zazpiki irratia, antzezleak, dantzariak, musikariak eta ahaztu nahi ez dituzun zenbait preso (zoritzarrez gehiegitan, zoritzarrez gutxiegitan aipatuak).

Baina laster konturatu zara ez duzula ar-

txibategira jo beharrik. Gaur lanean izan zarela eta, egunero bezala, elgoibartar batekin ezkonduetako lankidearekin aritu zarela, kafean gaztaroko lagun minaren lehengusina agurtu duzula gaur ere, larunbatean El Corte Inglesean sartzen ikusi zenituela herriko senar-emazte despistatuak,...

Eta gogoratu duzu joan den astean ikasle batek esan zizula bere amama elgoibartarra zela, gogoratu duzu abenduaren 31n Aizkorrin herritar talde baten ondoan egin zeniola topa urte berriari, eta bazkaritan herriko gaz-

ta jan duzula, beste askotan bezala. Eta gogoratu duzu halaber, zure ipuinetan ere atera diozula ezpalen bat herriari.

Eta horrela, poliki-poliki, puzzle bat osatzen joan zara. Orduan harra sartu zaizu sabelean, eta asteburuan herrira joatea erabaki duzu, puzzleari falta zaizkion piezak se-

nideengan aurkituko dituzula baitakizu.


Eta semeak idazten ikusi zaitu eta, zertan ari zaren azaldu diozunean, galdetu dizu: “ni ere banaiz pixka bat elgoibartar, ezta?” “Bai, jakina,” erantzun diozu. Eta konturatu zara “bai” hori ez dela semearen galderaren erantzuna bakarrik. Horrela jakin duzu BARREN barrendariari emandako baietzaz ez zaizula damutuko: “Ni ere elgoibartarra naiz barren!” Eta hori entzutean, deabrutxo batek esan dizu: “Gasteiztartuta zaude ordea!”

Eta erantzun diozu: “Bai. Eta?”

“Orduan harra sartu zaizu sabelean, eta asteburuan herrira joatea erabaki duzu, puzzleari falta zaizkion piezak se-nideengan aurkituko dituzula baitakizu”

Atal hau ez da BARRENeN editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barra, birrak eta barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 ☎ **74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **74 37 04**
Faxa: 74 37 04

| | |
|------------------------------|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Ainhua Lodoso |
| ERREDAKZIO KONTSEILUA | Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria |
| KAZETARIAK | Ainhua Lodoso, Jasone Osoro |
| PUBLIZITATEA | Miren Moreno |
| MAKETATZAILEA | Mikel Cornejo |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez |
| KOLABORATZAILEAK | Irati Agirreazaldegi, Ana Artetxe, Jon Garate, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar. |
| BANAKETA ARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1133-021X |

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Kaixo herritarrok:

Euskara ikasten ari garen AEKko talde bat gara. Joan den azaroaren 13an Elgoibarren marxan jarri zen “Elgoibar gero eta garbiago” kanpaina aprobetxatuz, Uribe kostaldean ipinitako lata ontziei buruz informazioa emana nahi dugu.

Ontzi hauek 2.000 potentzako lekua daukate, poteak %20an txikitzen dituztelako.

Uste dugu poteak erreziklatzea merezi duela ingurugiroarentzat, eta gainera, errentagarria da aluminioa eta burdina saltzen delako. Bestalde, ontziek publizitatea daukate kanpotik, horri esker Uribe Kostaldeko Udalei musutruk atera zazikie ontziak. Beste berezitasun batzuen artean, ontzi hauek su hartzen badute, ez dira erreko, urtu baizik.

Horregatik proposatu nahi diogu Udalari horrelako ontziak ipintzeko beste ontzien ondoan.

Espero dugu laster kaleetan ikustea.

AEKko 5. urratseko ikasleak

Herri Institutuko Zuzendaritza

“San Juan Bosco, fiesta Vodka”

San Juan Bosco eguna irakaskuntza-heziketa lanari lotutako egun berezi bat zela uste genuen.

Egun horretan ikasleen arteko lehiaketak izaten dira: futbitoa, sokatira, txokor bilketa, goitibehera, krosa, mendiko bizikleta, tortila lehiaketa eta, gainera, marrazki, idazlan eta antzerki lehiaketa. Ikasleek gustura hartzen dute parte, irakasleekin beste era bateko harremanak lortuz, bide batez.

Ez gara harritzen, gure gizarte hau kontsumokerian erorita dagoelako baina, egia esan, ez genuen uste zenbait tabernariren lotsagabekeria hain nabarmena izan zitekeenik. Izan ere, jai hori aprobetxatuz “San Juan Bosco, fiesta Vodka” eta “San Juan Bosco, dos consumiciones al pedir una” eta horrelako deiak ezarri zituzten ikastetxeko hormetan herriko zenbait tabernarik.

Mesedez, negozioia ondo dago, baina ez edozein une, era eta prezio-tan.

GALDERAK

◆ Elgoibartar batek galdera hau luzatu nahi dio Odol Emaileen Elkarteari: **“Zergatik izaten dira odol ateraldi guztiak arratsaldean? Ez al dago goizez egiteko aukerarik?”**

Odol Elkarteko Ramon Maiztegiarekin hitz egin dugu eta hona hemen erantzuna: “Odola ateratzeko Donostiatik etortzen da talde bat. Guk esaten diogun egu-

nian eta orduan etortzen dida baina **beti izaten da arratsaldian, goiza okupata eukitzen dabelako**. Galdera egin dabana Donosti aldiaren ibiltzen bada, Donostian bertan aterako diue odola nahi izanez gero. Hango helbidia Larramendi 10 da eta goizeko 10etatik eguerdiko 14:00ak arte eoten diaz eta atsaldian 5etatik aurrera”.

KEXAK

◆ Gazte batzuek deitu digute zera esateko: **“Joan den domekan, arratsaldeko 19:30ean, Herriko Antzokira abiatu ginen pelikula ikusteko asmoz. Baina heltzerakoan, hara non ikusi genuen Haurrentzako marrazki bizidunen “Hercules” pelikula botatzen zutela. Guk uste genuen “Después de una noche” emango zutela. Ez dugu ulertzen zergatik ipini zuten iluntzeko emanaldian haurrentza-**

ko pelikula. Haurrak zinera joatekotan, arratsaldeko 16:30ean joaten dira eta ez iluntzean. Domeka arratsaldeko emanaldia gutxi balitz, zapatu arratsaldeetan antola daiteke haurrentzako beste saio bat eta horrela gazteok domeka iluntzetan zinera joateko aukera izango genuke. Hurrengo batean horrelako aldaketa bat egiteko tentazioa baduzue, kontuan izan gazteok planik gabe geratuko garela domeka arratsaldean”.

BAI, ESAN?



Itziar Fernández

EMAKUNDEko idazkaria

Aste honetako telefono deia **Itziar Fernández** elgoibartarrari luzatu diogu. Gehienok jakingo duzuen bezala, **Itziar EMAKUNDEko idazkaria** da eta 10 urte bete berri ditu emakumearen aldeko erakunde honek.

- **10 urte. Azkar esaten da. Nolakoak izan dira?** - Intentsitate handiarekin bizi izan ditut. Emakunden sartu nintzenean hainbat gauza zeuden egiteko. Egia esan, 10 urte hauek konturatu gabe pasa zaizkit. Hamarkada honek, pertsonalki begiratuta, emaitza onak eta mementu txarrak izan ditu baina edozein kasutan esan behar dut oso aberasgarriak izan direla. Emakunderi buruz, berriz, zer esanik ez. Urte hauek oso garrantzitsuak izan dira Emakunde gaizatzeko eta finkotzeko aukera izan baitu.

- **Zertarako sortu zen Emakunde?** - Jendearen eskaera bati erantzuteko. Euskal gizartean beharra zegoen erakunde bat sortzeko ze gure artean bazegoen, eta oraindik ere badago, noski, emakume eta gizonen arteko diskriminazioa. Emakunde Euskal Administrazioetik lan egiteko sortu zen kontuan edukita ezin dela egin aldaketarik gizartea kontuan hartu gabe, hau da, Administrazioak ezin ditu gauzak bakarrik aldatu, gizarteak ere zeregin handia du lan horretan.

- **Ari al zarete hasierako helburuak betetzen?** - Nik uste dut baietz, baina esan behar da gizon eta emakueen benetazko aukera berdintasuna ez dela lortuko egun batetik bestera. Oraindik ere gauza asko daude kolokan. Nik beti esaten dut gure helburua luzera begira dela eta ez epe motzera baina egunero daukagu zerbait egiteko. Pauso txiki baina trinkoak ematen baditugu gure helburua lortuko dugu.

- **Azken aldiak, zoritxarrez, emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak izan dira notizia. Noiz arte?** - Zoritxarrez arazo hori ez da egun batetik bestera konponduko. Egun hauetan notizia dira tratu txarrak baina horrelako gauzak beti gertatzen dira, nahiz eta komunikabideetan ez agertu. Gure aldetik hainbat neurri bultzatze ari gara: errekurtsioak, zerbitzuak, informazioa, sentsibilizazio kanpainak eta abar. Batez ere prebentzio neurriak jarri behar dira eskoletan ikasleekin hasiz. Dudartik gabe, beste jarrera batzuk bultzatzen ez baditugu eraso hauek ez dira inoiz bukatuko.



I. URTEURRENA

1997ko otsailaren 6an, 84 urte zituela hil zen


AURELIO MUJIK A LARRAÑAGAren oroimenez

URTEURRENEKO MEZA izango da Elgoibarko Parrokian

igandean, hilak 9, eguerdiko 12:30ean.

Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





Etxeginaren koruak bihar, izapatua, aterako dira kalera.

Koplak baserrietan eta kalean



Otsailaren 3an San Blas eta 5ean Santa Ageda. Anis usaina aste osoan izan dugu kaleko ertz guztiak astintzen. Horren bueltan, asteazkenean, hilak 4, Santa Agedako koruak atera ziren. Kalez kale batzuk Itxaropena abesbatzarekin eta baserri bestek. Ramon Uriguenen zuzendaritzapean bihar, larunbata ikusi ahal izango ditugu berriz ere Santa Agedako koruak herriko kaleetan. Elgoibarko Izarrak, berriz, 1994an berreskuratu zuten baserritarrei koplak kantatzeko ohitura zaharra.

Ramon Uriguenek kontatu digunez, Santa Ageda eskea kalez kale bromabaten ondorioz hasi zen Elgoibarren. Ramonen aita zena, Etxegiña, eta honen kuadrila izan ziren bultzatzaileak, “lagunen artian baietz eta ezetz hasi zian eta azkenian kalera urten. Aitxa zana izaten zan koplari eta lagunek koruak eitzen zitxuen. Herriko aberatsengana juten zian eskian eta etaratako diruakin afari bat eitzen zebeñ”. Gaur egun, aldiz, “etaratzen dan dirua Karitasi ematen jako”.

Ohitura Santa Ageda egunaren bezperan ateratzea zen. Arratsaldean, lanean baimena eskatuta ateratzen ziren korukideak. Urteak pasa ahala, gero eta zailagoa egiten zen jendea lanetik orduz irtetea, beraz, Santa Ageda bezperan egiten zena zapatura pasa behar izan zuten. Harrezkero zapatuan kantatu dute.

70 lagun koruetan

Goizeko 9etan Baltasar elkarte parean elkartzen dira 70 lagun inguru, Pedro Urain koplari. Ramonen esanetan, “gehixo izatia nahiko genuke baina ez da erreza. Jende gitxi animatzen da eta gaztiak apenas. Lehen Santi Kortaberria eta bixok ibiltzen ginan baina oin bakarrik nao antolatzen eta penia izango zan nik lagatakuan desagertuko balitz”. Lehenengo koplak parrokoari eskaintzen dizkiote. Handik San Roke auzora igotzen dira; gero Sigmara, Santa Klara, Urasandi, San Pedro eta kalera berriz ere. Dena oinez. “Garai batian autobusa debalde lagatzen ziguten baina aspaldixan ez dao holakorik eta alkilatzia oso karua urtetzen da”. Urasandin hamarretakoa egiten dute, “pare bat tabernatan bokadiluak enkargau eta atsedendaldira itxen dou”.


Diru gutxi batu

Usadioaren arabera, polita izaten da koplak pertsona konkretuei kantatzea, “lehen gure aitxak herriko andreri eskainitako koplak abesten zitxun. Oin, en kanbio, aurretik prepa-rautako bertsuak kantatzen ditxue”. Giroa polita izaten omen da, “ederki pasatzen dou eta bueltia ein eta gero, Errosoixo kaleko Ama Birjinari salbia kantau eta gero, Baltasarren bazkarixa eukitzen dou danak. Babia, odolostia, txorixua eta holakuak erregalo ematen digute eta pastelak ere bai. Zankarroia erosten dou guk. Gero, bazkal ostian, tertulixa politxa sortzen da, bertsoan batzuk, trikitixan musikia dala...”. Herritarrek estimatzen duten ohitura da, “baina ez da diru gehixegi batzen. Gastuak ere asko izaten dia eta guk gehixo batzia nahi genduke”. Aurten berrikuntza bat izan da, “zapatuan ez ezik asteazkenenian ere Itxaropena abesbatzakin atera gera”. Aurreko urteetan jasotakoaren bikoitza aterako al zuten aurten?

Baserriz baserri koplatan

1994an berreskuratu zuen Elgoibar-ko Izarra Kultur Elkarteak baserriz baserri Santa Eskean ibiltzeko ohitura. Imanol Larrañaga elkarteko suspertzai-leak esan digunez, “elkarteko helburuen artian euskal kultura bultzatzia dao eta euskal kulturak baditxu ohitxura zahar batzuk, horien artian Santa Eskia. Saiakera bat eitxia pentsau gendun eta baserritxarren artian zein estimazio dakan ikusitxa, aurten bosgarren aldiz urten gera”. Imanolek esan digunez, “elkartiantzat ez da lan haundiegixa hau dana antolatzia, koruen bueltan dabilen jendiari esker. Urtero 16 lagun inguru elkartzten gera eta danek laguntzen debe”.

Bost urte hauetan jende berdintsua ibili izan da Elgoibarko Izarraren Santa Eskean, “lelengo urtian talde bat osatzeko beste asegurau gendun baina gerora bi talde osatzeko jendia biltzia lortu izan deu”. Herriko bi bertsolariarekin hasi ziren, “Ziarda eta Meabe izan zian lelengo koplariak baina bi talde sortu zianian beste bi koplari bihar zian eta



Elgoibarko Izarrak 5 urte daramatza Santa Eskean baserriz baserri.

azkenengo urtietan Juan Mari Areitio bizkaitxarra eta Narbaiza eibartarra etortzen dia. Trikitilarixak, berriz, Joseba eta Iker, Ekaitz eta Arantxa eta Balzola anaixak izaten dia”.

Elgoibarko Izarraren nahia hasieratik izan da ahalik eta auzo eta baserri gehienetatik pasatzea, “baina ez dau denborarik ematen danerako eta txandaka eitxen saiatzten gera, urte baten ezin dana, hurrengo urtian”. Aurten San Migel, San Pedro, Urruzuno eta San Lorentzeko ahalik eta baserri gehienetatik pasako dira.

Beti Santa Ageda bezperan

Elgoibarko Izarrako koruak beti atera izan dira Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an hain justu. Horrek esan

nahi du aste barruan tokatzen denean jende askok lanetik lehenago atera behar izaten duela. Arratsaldeko 14:30ean hasi eta gaueko 22:00ak bitartean jarduten dute baserriz baserri. Halere, Imanolek kontatu digunez, “lelengo urtian goizeko 9:30ean hasi ginan eta hurrengo eguneko 5:30ak arte ibili ginan. Ixa egun oso bat!”. Baserri askotara gauzez iritsi ziren, “batzuk lo harra-pau genitxun eta ez zian urtetzen baina gehixenek gogo onez hartu gintxuzteten. Asko estimatzen dabe”. Gainera, koplariak baserrian baserriko koplak botatzen dituzte bat-batean, hau da, baserritarrei beraiei eskaintzen dizkiete bertsoak. Dirua botatzeaz aparte, etxe-ko sukaldera sartzeko gonbita ere luzaten diete askotan baserritarrek, “sanblasa dala, ardaia dala...”. Elurra ere ezagutu dute Elgoibarko Izarrakoek Santa Eskean atera izan direnean, eskerrak baserriz baserri ibiltzeko furgoneta izaten duten, “bata alkilau eitxen dou eta bestia koruetako batek eruatzen deu”. Gainera, hozten denak barruak bapo berotzeko aukera izaten du Santa Eskea amaitu eta gero San Migelen izaten den afarian, “arkumia izaten da urtero”. Kontua da, gaur egun Santa Ageda eguna hurreratzen hasten denean, baserritar askok galdetzen dietela ea aurten ere joan behar duten koplak kantatzen. Ez da, ez, seinale txarra. Aurten, gainera, ETBko “Hitzetik Hortzera” saiokoak izan dituzte lagun, izan ere, aipaturiko programarako irudiak eta koplak grabatu baitituzte.

Santa Agedaren historia

Santa Ageda Sizilian jaio zen 230. urtean. Edertasun handiko neskatxa omen zen Ageda eta Kinziano gobernadoreak berarekin ezkondu nahi zuen. Baina Agedak, ezezkoa emateko maitasuna baino indartsuagoa zen arrazoi bat zeukan: Santa Ageda kristaua zen, gobernadorea ez bezala. Honela, Kinzianok, mendeku bila, Agedari bularrak moztea agindu zuen. 251. urteko otsailaren 5ean hil zen.

Zer iruditzen zaizu heriotz zigorra?



JOSE LUIS AZPILLAGA
40 urte, irakaslea

Gaizki. Ez zait iruditzen modu egokia denik justizia egiteko, kasu batean ere ez. Justizia baino gehiago, mendekua dela iruditzen zait.



ALAZNE GURRUTXAGA
26 urte, administraria

Printzipioz ez naiz aldekoa ze oso zaila da jakitia zehatz pertsona bat erruduna dan ala ez. Gartzelak hor daude. Heriotz zigorrak ez daka bueltarik.



PEDRO MARI PLAZAOLA
47 urte, aseguru agentea

Gaizki iruditzen zait. Heriotz zigorra sekula ez dao justifikauta. Nik uste det gauza txar bat ez dala beste gauza txar batekin pagatzen edo konpontzen.



LUIS ARTETXE
68 urte, jubilatua

Desastria. Gauza asko dao toki askotan pagatzen ez diazenak. Ez gizona ez txakurra ezin leike hil, ez dao deretxorikan. Falta mordua daude aurrera pasatzen ditzuenak.



MARI CARMEN ROSA
37 urte, etxekoandrea

Ez dakit zer esan. Egoera kontuan hartu behar da. Biktimaren familiaren azalean jarriz gero, gauzak ezberdin ikusten dira. Hala ere, heriotz zigorra beste krimen bat da.



JABIER MUGERZA
21 urte, elektrizista

Oso gogorra da baina kasu batzuetan merezi dabe. Baina peligrua dao ze askotan ezin leike ziurtau pertsona bat benetan erruduna dan ala ez.

ANCHUSTEGUI S_a
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel: 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Karkizano
San Frantzisko 12-14 - Tel: 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 74 08 49

POL-POL
T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGIAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAXA

ISPILUARI BEGIRA



JUAN MANUEL
VILARCHAO

GORDON VILARCHAO
PINTURARAKOAK

- Zer "pintatzen" dugu bizitzan?
- Egia esan ez dakit baina merezi du bizitzea eta ahalik eta gehien aprobetxatzea.
- Zein kolorekoa ikusten duzu bizitza?
- Gustukoena urdina dut eta kolore horretakoa ikusi nahi nuke bizitza.
- Eta etorkizuna?
- Urdin argia baita ere, oso optimista naiz.
- Osatu zorientasunaren paleta.
- Osasuna, familia eta lagun onak.
- Naturako zein kolore duzu gustukoaren?
- Mendien berdea.
- Jantziko ez zenukeen kolorea? - Laranja.
- Zein janariren kolorea gustatzen zaizu?
- Paellarena.
- Zein kolorekoak dira zure etxeko hormak?
- Urdin argiak, horiak eta salmoi argiak.
- Lasaitzen zaituen kolorea?
- Kolore suabe eta pastelak orokorrean.
- Eta urduri jartzen zaituena? - Laranja eta gorria.
- Zerk jartzen du kolore bizia zure bizitzan?
- Nik neuk eta nire emate eta semeak.
- Eta zerk ilun dezake? - Gezurrak, engainuak.
- Zerk ateratzen dizkizu koloreak?
- Espero edo kontrolatzen ez ditudan egoeratan jokoz kanpo egoteak.
- Zure ametsetako bidaia?
- Latinoamerikari bira ematea.
- San Balentin eguna ospatzen al duzu?
- Bai, opariren bat eta afari batekin.
- Sekula iragarri al dizute etorkizuna?
- Bai baina kuriositatez, besterik gabe. Ez nion kasu gehiegirik egin.
- Zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?
- Ambizioa lasai bizitzen jakin eta niretzako denbora izatea, eta bizioa bidaiatzea.
- Zein galderaren erantzuna jakin nahi zenuke?
- Nire anbizioa dela esan dizudana lortuko dudana ala ez.

Eraso berria Karakateren aurka

Beste bat eta honez gero lau dira. Oraingoan 20 metroko antena bat eta txabola bat jartzeko Telefónica Móviles SAREN txanda da. Elgoibarko Udalak lanak gelditzeko agindua eman zuenerako porlanezko oinarria eta bertara iristeko bidea eraikita zeuden. Baina nola izan zuen Udalak legez kontrako lan horien berri? Horrenbeste tratatu txar pairatu dituen mendilerro horrekiko duen arduragatik ote da? Ez. Ertzainak izan ote ziren, beraien telekomunikazio zentroa zaintzeko gailurrera egiten dituzten igoeren baten ondoren? Ezta ere.

Gaszte batzuk izan ziren gertaeraz ohartu eta Soraluze eta Elgoibarko Udaletan lanei buruzko informazioa eskatu zutenak. Eta hauek ez zekiten ezer. Ezertxo ere ez. Lotsagarria da.

Beraien antenak ikutzen ez dituzten bitartean, polizia eta udalei bost axola zaie Karakateri egiten dizkioten erasoak. Zein izen ematen zaio horri? Arduragabekeria edo prebrikazioa? Karakate urbanizatu ezineko Parke Naturala izendatzen duen Soraluzeke hirigintza araudiari muzin egin zioten 70 metroko antena bat eta 300 m²ko eraikin bat eginez, eta orain kezkatuta daudela esaten dute!! Bai, kezkatuta daude, baina benetako arduraren zein den Elgoibarko G. Garate alkateak alzada

zuen: "ezin dugu onartu, neurri honetako lanak Udala kontuan hartu gabe egitea". Horra hor arrazoa. Ez zaie axola inguruneari egindako erasoak, Udalaren baimenik gabe egitea baizik.

Lan hauetan intersatuta daudenean, hau da, ingurunearen eta herritarren ongizatearen kontura poltsikoak betetzen dituztenen azpijoko maltzur eta informazio isiltze eta izkutatzeak salatu beharra ditugu.

Ez zioten garrantzirik eman Euskalnetek telekomunikazio zentroa eraikitzeko esandako gezurrei: kalte minimoa eragingo zutela, etxea erdi lurperatua eta inguruko harriekin disimulaturik egongo zela, TBko emisioen hobekuntza ekarriko zuela, beste antenak berri bateratuko zirela, ... guztia gezur hutsa. Udalek zerbait egin ote zuten? Ez. Inolako kezarik, inolako salaketarik ez.

Zer egin behar du orain Udalak? Guztia diruarekin konponduko da eta Karakatek bere laugarren antena izango du. Aski da.

Guk lanak betirako gelditzea exijitzen dugu, egindakoa botatzea, zonaldea zegoen bezala uztea eta Telefónica Móviles SAK egindako kalteak ordaintzea.

Eraso gehiago ez Karakateren aurka!!

**Karakate Bizirik
Plataforma**



● **Gure-Bide****Elkarteko****zuzendaritza berria**

1998rako Gure-Bide Elkar-teak zuzendaritza berria aukeratu du. Juanito Gorostizak lehendakari lanak egingo ditu. Lehendakariordea Koldo Lizarralde izango da. Idazkari Alejandro Alvarez izendatu dute; Xabier Estarta kontablea eta diruzaina Juan Luis Apellaniz. Bokalen izen-abizenak hauek dira: Jesus M. Aizpurua, Xabier Garrate, Julian Azkue, Tomas Olasolo, Jesus M. Barrutia, Jose Zubizarreta, Julian Agirregomezkorta, Jose Ramon Oiarzabal, Iñigo Ortuoste eta Manuel Jurado.

● **Zuhaitz Astialdi Taldeak antolatutako irteerak**

Zuhaitz Astialdi Taldeak eta Morkaikok mendi irteera batzuk antolatu dituzte 1998rako. Irteera hauek Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara bitarteko haurrei zuzenduak daude, baita haurren guraso eta irakasleei ere. Haurrak mendira irte-ten ohitzeaz bat, Elgoibarko inguru naturala ezagutu eta elkarlanaren balioa onartzen ikasteko aukera izango dute. Irteeretara joaten diren haurren adinaren arabera ibilbide errazak eta zailagoak egongo dira. Parte hartzen duten haurren jarraipena egitea zaila denez, antolatzaileek haurren erregistro bat eramango dute. Honela, Morkaikok antolatzen duen Finalista Egunean, sari banaketa berezi bat egongo da irteera gehienetan parte hartzen duten haurrentzat. Lehen irteera hilaren 8an, domeka, izango da Mintxeta, Goenaga eta Sallobente inguruetatik. Izena emateko Morkaikora (74 02 97) edo Zuhaitz Astialdi Taldera deitu (74 42 85).

Euskal Ihaunteria antolatu du Haritz Dantzari Taldeak Harnabaletarako

Hilaren 21ean, ohiko Mozorro Lehiaketa egongo da

Ihaunteriak gainean ditugu eta dagoneko Udalak kaleratu du egun horietarako prestatu duen egitaraua. Hilaren 21ean, zapatua, eta hilaren 24an, asteartea, izango dira ekitaldi gehienak. Aurten, Haritz Dantzari Taldeak 25. urteurrena ospatzen duenez, Euskal Ihaunterietako ikuskizuna prestatu dute. Hilaren 21ean, zapatua, Mautitxa Txaranga eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko dantzariak kalejiran irtengo dira arratsaldeko 18:30etik aurrera, euskal ihaunteri tradizionalako jantzi tipikoekin. Horrelako ikuskizun bat lehen aldiz antolatzen da

Elgoibarren.

Besterik ere izango da Ihaunterietan. Zapatuan, hilak 21, Atxutxiamaikea Begirale Taldeak antolatuta, karaoke eta mozorro desfilea egongo da Plaza Handian. Gauean, Trakets taldearekin dan-tzaldia izango da eta ondoren, mozorro lehiaketa. Gurutze Gorriko Aisialdi Taldeak antolatu eta aurkeztuko du saioa. Sariak ez dira nolana hikoak. Taldeka, 30.000 pta. irabaziko ditu mozorro onenak. Bigarren saria 20.000 pta.koa da eta hirugarrena 15.000 pta.koa. Banaka, 20.000 pta. jaso-

ko ditu irabazleak, 15.000 bigarrenak eta 10.000 hirugarrenak. Asteartean, hilak 24, ikastetxe guztietako haurrak Plazan elkartuko dira. Bertan Azkona taldearekin arratsaldea barre algara artean pasatzeko aukera izango dute. Mautitxarekin txaranga izango da jarraian eta amaitzeko, suzko zezena.

● **Astigarragako sagardotegietara AEKrekin**

AEK euskaltegiak Sagardotegi Eguna antolatu du datorren zapatarako, hilak 14. Asmoa Astigarragara joatea da bertako sagardotegiak ezagutu eta horietariko batean bazkaltzea. Astigarragara iritsi ondoren, 14:30era aldera, bazkalorduren txanda izango da. Arratsaldean, 18:00etatik aurrera, artisau erakusketa, trikitia, Anje Dualde, 'Txatanuga Benbe', 'Ezakit', 'Akellarre' eta beste talde batzuen emanaldiak ikusteko aukera izango dute. AEKk autobusa antolatu du Elgoibartik. Bazkaria eta autobusaren prezioa 3.500 pta.koa da. Txartelak jasotzeko epea, datorren asteartean, hilak 10, bukatuko da eta berauek erosteko AEK euskaltegira jo, Aita Agirre plaza 3, 1. solairua. Informazio gehiagorako 74 13 32 telefono zenbakira deitu.

● **AEKren zozketa**

Gipuzkoako eta Arabako AEKren zozketan zenbaki saritua 17.850 izan da. Zenbaki hau urtarrilaren 30ean ONCE elkartearen zenbaki saritua izan zen. AEKtik esan digutenez, zenbakia Arrasaten saldu zen eta jabea agertu da. AEKk txartelak erosi dituzten guztiei eskerrak eman eta irabazleari zorionak luzatu nahi dizkio.

● **Helduen Hezkuntzarako matrikula zabalik**

Helduen Hezkuntza edo EPA delakoan izena emateko matrikula epea zabalik dago. Ikasteko aukerarik izan ez eta graduatu titulua atera nahi duten pertsona helduei zuzendutako hezkuntza da. Ikastaroan izena emateko Kultura Zerbitzuarekin harremanetan jarri (74 21 58).

Handelaria, San Blas eta Santa Ageda

Baserrietako Santa Eskea ETBko 'Hitzetik Hortzera' programan emango dute


Gutxitan ospatzen dira horrenbeste jai bata bestearen jarraian. Astelehenean, hilak 2, Kandelaria izan zen. Otsailak 3, asteartea, San Blas eguna. Eta hilak 5, Santa Ageda. Egun hauetan erabat erroturik dauden tradizioak berreskuratzen dira urtero urtero. Kandelaria egunean argizarizko kandelak bedeinkatzera eraman zituzten herriker askok elizara. San Blas egunean ere elizak lepo zeuden anis opilak, fruituak, kandelak eta bestelakoak bedeinkatzera eraman zituzten herriarrek. Aurten, Pilar ikastetxeko ikasleak ere, parrokiaraino hurreratu ziren San Blas opilak bedeinkatzeko.

Santa Agedaren omenez kantari

Santa Ageda eguna otsailaren 5ean izan bazen ere, ohitura da bezperan koplatan irtetea. Horrela bada, goizean Herri Eskolako haurrak Urasandi inguruak koplutzen aritu ziren. Ikastolako neska-mutilak ere, Regina andereñoaren gidaritzapean, koplak abestu zituzten arratsalde partera herriko ka-

leetan. San Frantzisko eta San Bartolome kaleetatik pasatu ondoren, Errosarioko Amabirjinaren oinetan amaitu zuten kalejira, Salbea abestu ziotelarik. Baina ikastolakoak ez ziren kantuan atera ziren bakarrak Santa Ageda bezperan. Elgoibarko Izarrako taldeak baserriz baserri ibili ziren eta ETBko kamarak koruen jarduna grabatzen izan ziren. Hasieran, Plaza Handian bitaldeek batera egindako koplak saioa grabatu zuten. Gero, Aldapa eta Urtia baserrietan egindako saioak jaso zituzten. Irudi hauek ETB leko 'Hitzetik Hortzera' saioan emango dituzte, gaur, hilak 6, gaueko 22:30ean, eta errepikapena domekan, hilak 8, bazkal ostean.

Bestalde, aurten lehenengo aldiz, Etxegiñak sortutako Santa Agedako koruak eta Itxaropena abesbatza elkarrekin irten ziren bezperan. Kalez kale kantuan eta eskean aritu ostean, Etxegiñaren koroak berriz irtengo dira bihar, larunbata goizean goizetik.



16 lagun euskarazko idazkuntza ikastaroan

Joan den urtarrilaren 14an hasi zen Udal Euskara Zerbitzuak antolatu duen euskarazko idazkuntza ikastaroa. 16 lagun ari dira ikastaroan, gehienak administrazio arloko langileak eta euskaltegi eta ikastetxeetako irakasleak direlarik. Ikastaroa bitan banatu dute alde teorikoa eta praktikoa landu ahal izateko. Lehen 11 saioetan Euskaltzaindiaren arauak sakonduko dituzte Mila Garmendiaren eskutik, eta hurrengo 11 saioetan, Julia Marin irakaslearekin idazkuntza landuko dute. Ikastaroaren helburua euskararen normalizazioaren bidean euskara sakontzen eta eguneratzen laguntzea da, eta bestetik, informazio idatzia modu koherente eta zuzenean aditzera emateko beharrezko kontzeptuak ezagutzeko. Ikastaroa ekainaren 24ra arte luzatuko da.

● **Patronatuko administrari posturako 85 lagun aurkeztu dira**

85 lagun aurkeztu dira Kirol Patronatuak behar duen Administralari posturako deialdira. Duela bi ostirale euskara froga egin zen. Berez, 38 lagun izan ziren deituak aipaturiko azterketarako baina 11 baino ez ziren aurkeztu. Hurrengo froga, gaiei buruzkoa, otsailaren 20an izango da Kultur Etxean, goizeko 11:30ean. Ondoren, informatika eta azterketa praktikoa egin beharko dituzte eta azkenik, elkarrizketa pertsonala eta meritoak baloratuko dira. Batez beste, martxo bukaera aldera egingo dira azkenengo frogak eta apiril aldera jakinaraziko da nork lortu duen administralari postua.

● **Mankomunitateko Ideia Lehiaketa**

Elgoibarko Udalak eta Deba Beheko Mankomunitateak, kaleak garbi mantentzeko ideiei buruzko lehiaketa antolatu zuten. Aipaturiko lehiaketa L.H.ko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendua zegoen eta Elgoibarko 300 ikaslek hartu dute parte: 150 ikaslek San Bartolome ikastolatik, 60 Herri Eskolatik eta 100 Pilar Ikastetxetik.

Lehiaketa hau joan den urteko azarotik Elgoibarren martxan dagoen plan pilotoaren barruan sartzen da, “Kalean ez egin kale” lemapean burutzen ari dena. Izan ere, garbiketa plan honen baitan zenbait profesional eskolaz eskola dabil garbiketari buruzko hezkuntza eman, eta haurrak umetatik gai hauekiko kontzientzia daitezten.

Lehiaketaren irabazleen izenabizenak otsailean emango dira jakitera eta ondoren erakusketa bat antolatuko da aurkeztu diren lan ikusgarrienekin.

Eguneko Zentroa laster martxan izango da

Sukaldea behar bezala egokitu zain daude

Udaleko Ongizate Saialak gaixo dauden hirugarren adineko pertsonentzat Eguneko Zentroa jarriko du martxan berehala. Horretarako, Jubilatuen Etxean 100 m2 egokitu dira azken hilabeteotan. Jakin dugunez, sukaldea behar bezala jartzen denean hasiko da funtzionamenduan.



Eguneko Zentroaren atsedeen lekua.

Belen Elorza, Ongizate saileko lehendakariak esan digunez, “obra zibila amaituta dago eta altzari guztiak ere prest ditugu”. Azken hilabeteotan izan diren obren eraginez aldakuntza nabaria izan da Jubilatuen Etxean, gelak tokiz aldatu eta txoko berriak egokitu behar izan direlarik. Hala ere, emaitza polita izan da eta Eguneko Zentroa prest dago martxan hasteko. Belenen hitzetan, “osasun inspektoreak etorri zirenean sukaldea zegoenetan ez zuten onartu eta zain gaude konponketa eta egokitze lanak hasteko. Hori amaitutakoan dena prest izango da”. Batez besteko kostua 8 milioi pezeta ingurukoa izan da orain arte.

Hezitzaileen prestakuntza

Eguneko Zentroa goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara bitartean egongo da zabalik. Helburua bikoitza da, “bategatik, gaixoen familia liberatu nahi dugu eurentzat ere denbora izan dezaten eta gaixoak erresidentziara eramateko garaia ahalik eta gehien atzeratuz. Bigarrenik, gaixoak behar bezala atendituak egongo dira, garbitu egingo dituzte, bazkaria eta askaria emango zaie, ekintzak pres-

tatuko dituzte... “. Eguneko Zentroaren ardura bi pertsonak izango dute, Monika Andonegi eta Arantxa Astiazaranek. Bi emakume hauek prestakuntza ikastaro bat egin dute eta herri desberdinetako Eguneko Zentroak bisitatzen ari dira hauen funtzionamendua ikusi eta informazioa bilduz. Elorzaren esanetan, “neskak ilusio handiarekin daude, gaixoak animatu eta dinamizatzeko gogoz eta hori garrantzitsua da”.

Mementuz hiru eskaera jaso dituzte Udaleko Ongizate Sailean. Gaixo bakoitzaren hileko kostua 65.243 pta.koa da eta 91.823 ezinduen kasuan. Hala ere, Aldundiak laguntzak ematen ditu: 21.300 pta. lehenengo kasuan eta 64.000 pta. ezinduentzat. Gaixo bakoitzaren diru sarreraren arabera laguntza hauek gehitu egin daitezke.



Bazkaria eta askaria ere emango zaizkie gaixoei.

AGURTZANE ETXANIZ: "DEBEMENek izan duen bidea jarraitzea da nire asmoa"

Agurtzane Etxaniz 33 urteko eibartarra da. Albaitaria da ikasketaz eta lanbidez azken hamar urteotan. Hailere, hilabete darama DEBEMENeko gerente bezala. Asier Albizuk lagatako tokia betetzera etorri da Agurtzane eta bere hitzetan, erronkarik handiena elkar-tearen martxa eta funtzio-namendua mantentzea da.

– Hilabete inguru daramazu DEBEMENen. Zein izan da lehen lana?

- Batez ere informazioa jasotzia. Jendia ezagutu pis-

kanaka-piskanaka eta lehendik hasitxa dauden proiektuak eta ondiok amaitzeke daudenak zeintzuk dian jakin eta horiei buruz ahalik eta informazio gehixen batzia. Egunera jartzen nao. Nere benetako lana ointxe hasten da proiektu berrixekin ze ontxe aurkeztu bihar dia.

– Zein da zehazki DEBEMENeko gerentearen lana?

- Batez ere dinamizatzaile lan bat da. Baserritxarren eta administraziuan artian bitxartekari lana eixia. Ba-

serritxarrek euren bizitza kalitatia hobetzeko zerbitzu gehixo eskatzen dabe eta guk euren alde lan ein bihar dou, administraziuan proiektuak aurkeztuz. Printzipioz hori da baina gero beste gauza pilo bat ere daude inguruan, beti ere baserritxarrek eta euren bizimoduarekin lotuta daudenak.

– Albaitaria zara lanbidez. Baserri mundua ezagutzen al duzu?

- Bai. Ni ardi kanpainen ibili naiz eta baserri mundua piskat ezautzen dot, bidian zati bat einda dakat. Baserritxarrek, beste dozeinek bezela, pertsona berriren aurrian errezelo piskat eukitzen dabe. Asierrekin ohitxu dia oin arte eta ni berrixa naiz eta gainera emakumia. Baserritxarren artian segun eta ze gauza erabakitzeke eta antolatzeke gizonetzkuak ibiltzen dia, ez daude ohitxuta emakumiak ikustera. Horren aurrian kezka eukitzen dabe baserritxar askok. Baina, tira, horren aurrian ere lan ein biharko dou.

– Zein helburu dituzu?

- Gauza edo proiektu berririk behintzat momentuz ez. Neria ez da izan prozesu bat. Egun batetik bestera izan zan aldaketia eta oingoz ez dakat ideia berririk. Asierrek hasitxako gauzekin jarraitzia da momentu honetan nere helburu nausixa. Aurre-

ra begira pentsatzen dot urtengo diala gauza berrixak.

– Animaliekin zuzenean zeinukan harremana ez duzu izango aurrerantzean.


- Ez seguruena baina pena-pena ez dosta emon lagatziak. Nik ikusten dotena da lehen buruhauste gitxio nakala. 10 urte neruan lan bardina eitxen eta ohitxu eitxen zera. Oingo lanak ardua gehixo eskatzen dau. Behin baino gehixotan esan dot sarri akordauko naizela nere ardixekin baina lan hau erronka berri bat da eta gustura hartu dot. Oingoz ofizian egoten naiz gehixenbat baina badakitx laster hasiko naizela kanpora urtetzen, jendia harremanak... Lehenguak, dudaripe, buruhauste gitxio zakan.

– Kaletarra zara. Nola ikusten duzu baserri mundua?

- Ni baserri munduakin oso lotuta nao azkenengo urtietan eta ikusten dot alde batetik gero eta jende gutxio bizi dala baserritik baina, era berian, asko mejorau dala bizitza kalitatia. Lehen kaletarrentzat baserri munduko jendia ezjakina zan, eskolagabekua. Gaur egun ez da ikusten hola, zorionez.

– Joango al zinateke baserri bizitzera?

- Baserrira bai baina ganauakin ez. Ortu txiki bat eta pare bat txakur. Baserriko lana oso gogorra da.



Ortua eta txandakako sistema

Kaletarrak ere baserriar bihurtzen dira askotan. Izan ere, batek baino gehiagok, kalean bizi arren, terrenotxo bat hartu eta, poliki-poliki hura landuz, ortua itxurosoa sortzen dute eurentzako. Baserri bueltan, berriz, orturik gabeko parajerik imajinatzea benetan zaila da.

Izan ere, aspaldi-aspalditik, baserriarrek beraiek ereindako barazkiak eta fruituak jatetik bizi dira. Kontua da, gaur egun oso gutxi diren arren baserriar zuzenean bizi direnak, baserriar gehien-gehienek ortu txikia mantentzen dutela. Lur zatia aprobetxatu nahi izaten dute eta kontuan izan behar da garai bateko lan nekosoa izan zitekeena asko arindu dela makinariari esker.

Joxepa Ugarteburu Aubixa baserrikoa da. Bera arduratzen da etxeko ortuaz, "garaixan garaiko produktuak ereiten dia eta egunero, giro ona dauanian, piskat begiratu bihar jako zela dauan ikusi eta

zeozer ein bihar bada eitzeko". Uztail-abuztua aldera hazia sartu eta erein, "oin makiniakin eitzen da, ez lehen bezela, dana eskuz. Askoz nekosua zan haura". Porru ederrak ateratzeko sekreturik onena Joxeparen iritziz, "zimaurrea ugari botatzia da. Eta hazixa sartzan danian, karia botatzia, mamorrurik urten ez daixan. Askok esan digu aurten ia zela etara douzen holako porru edarrak. Sekretua zimaurrea eta karia dia". Mimatu egin behar omen da ortua, beste gauza guztiak bezala. Zenbat eta arreta gehiago eskaini, orduan eta edarra-goak ateratzen dira barazkiak. "Txarrena, izotza eixia da. Izotza eitzen dabanian, akabo dana, ihar-tu eitzen da. Txarrena hori da ortuan-tzat".

Txandakako nekazaritza

Nekazaritza ekologikoa ez da ongarri kimikoaren partez ongarri organikoa erabiltzea bakarrik. Izan ere, gure inguruko nekazal gunee-tan ganadu asko ibiltzen da eta horiek sortzen dute lurak beharrez-

koa duen ongarria. Beraz, lurak behar beste nitrogeno izaten du eta izurrite eta mamorririk ez sortzeko behar bezalako oreka mantentzen du. Halere, ongarri organikoaz gain, kontuan izan behar da oso garrantzitsua dela bestelako sistema batzuk ere erabiltzea nekazaritzan. Horien artean txandakako nekazaritza aipa dezakegu. Hau da, lur sailean txandaka sartzan dira produktu desberdinak. Lehen letxua landatuta izan zen tokian hurrengoan tomatea sartzan da, esaterako. Horretarako badaude jarraitu beharreko irizpideak. Produktuak era desberdinean sailka daitezke:

- EXIGENTEAK:

Ongarri asko behar dute. Besteak beste, tomatea, piperra, berenjena, patata, pepinoa, meloia...

- ERTAINAK:

Dexente ongarri behar dute baina aurrekoek baino gutxiago eta nahiko desegina egon behar du. Hemen sartuko genituzke orria duten landareak: aza, azelga, letxua, kalabazina, baba...

- GUTXI EXIGITZEN DUTENAK:

Materia organiko osoa desegina behar dute eta nahikoa zaie aurretik landare exigenteak egon diren lurrean geratzen den ongarria. Multzo honetan sailkatzen dira erremolatxa, patata, porrua, tipula, berakatza, azenarioa...

Honela bada, lehenengo urtean oso exigenteak diren landareekin hastea komeni da. Izan ere, partzela berean txandakatu egin behar dira landare multzoak, aurretik egon direnen ordeztan beste batzuk sartuz.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

AUBIXA baserria

Lainoa behean zegoen Aubixara igo ginenean. San Pedron gora, errepideak konpontzeko benetako beharra duela konprobatzeko aukera izan genuen. Halere, lanbro artean kotxetik jaitsi eta Aubixa baserriko sukaldean sartu ginenean, bertan zegoen epeltasunak, San Blas usainak eta haur mordo baten algarek giro benetan atsegina erakutsi ziguten.

San Pedro auzoko baserririk ezagunenetakoa dugu Aubixa. Baserri bezala urte askoan jardun eta gero, 1962. urte inguruan Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak alokatu zuen etxea eta uztaile eta abuztuaren artean San Bartolome ikastolako haurren udalekua izan zen. Garai hartan Aubixa baserrikoak kalean bizi ziren. Halere, urte batzuk aurrerago, baserriaren egoerak beherantz egin zuen. Udaleku izateari laga zion eta etxea ere gero eta hondatuagoa zegoen. Hortaz, duela 7 urte, 1990ean hain justu, jabeek baserria eraberritzea erabaki zuten. Gaur egun barnetegi modura funtzionatzen du aste osoan zehar.

Baserri garaiak atzean

Joxepak gogoan du bera gaztea zela nola bizi ziren baserrian, “orduan ganau aerrendidu biharra zauan eta lana nekosua zan askoz ere oin baino. Oin akaso arduria dakagu gehixo jende asko ibiltzen dalako bueltan baina lana ez da lehen bezain nekosua”. Izan ere, baserri-rik geratzen zaiena etxearen aldameneko ortua da. Joxepa bera arduratzen da baratzaz, “guretzako eta umientzako beste etaratzen dou normalian, letxugak, tomatia, azia, babia.... Danetik”. Gustura bizi dira, “oin gainera, baserriko bizimoduak ez daka zerikusirikan lehenguakin. Bidia dao kotxiakin bajatzeko eta hori gauza haundixa da”.

Gainera, Juan Jose Aubixako sukaldariak esan digun bezala, “hemen aste osuan egoten da jendia. Astian zihar ume talde bat egoten da eta astebukaretan ere egoten dia helduak, ikastaro desberdinak... Kaleko girua bizi dogula esan leike ixa. Beti jendez ingurauta gaude eta”. Egunetan zehar lau begirala ume talde batekin ibiltzen dira euskara lantzeko helburuarekin. Juan Jose eta Joxepa arduratzen dira haurren jatorduak prestatu eta etxea garbitu eta



Barnetegia

1990. urtetik Aubixak barnetegi bezala funtzionatzen du. Karmen Altuna Aubixan begirale lanetan dabil hiru urtetik hona. Esan digunez, “helburua, haurrei euskaraz normaltasun osoz bizi daitekeela erakustea da. Normalean euskara ikastetxeekin eta edukiekin bakarrik lotzen dute eta hori burutik kentzea lortu nahi dugu. Euskarak edozertarako balio duela: jolasteko, harremanetarako, bazkaltzeko..., ez bakarrik ikasteko eta irakasleekin hitz egiteko”. Horretarako, irteerak egiten dituzte, abestiak ikasi eta kantatu eta gauza desberdinei buruzko taillerak antolatzen dituzte: antzerkia, bideo-pelikula, diapositiba, bizkoizketa, bertsolaritza, gaueko ipuina...

txukun mantentzeaz. Juan Josek esan digunez, “bizimodu honetara ohitxu eitzen zera. Gutxi gorabehera badakizu ze preparau jateko, ze kantidadere ipini... Ez da problemarikan egoten eta umiekin ezta ere”.

Asteburuetan, berriz, jatetxe modura funtzionatzen du Aubixak bi urtetik hona. “Horrek lan gehixuaua ematen dau ze jatekua desberdina da, gauza diferentiak euki bihar dia aukeran, ez dakizu zenbat jende etorriko dan.... “. Denetik izaten da Aubixan aukeran, garaian garaiko produktuak normalean. Hori bai, Juan Josek esan digunez, “barixaku iluntzian libre hartzen dou ze ostantzian ixa ez dakagu denbora liberrik. Nik pala partiduren bat jolastera juteko aprobetxatzen dot gehixenetan, edo kalera bajau... Ahal dana”. Maiatzean ixten dute baserria egun batzuetan. Hauek ere oporrak merezi dute, ezta?

AUBIXA

- **Auzoa:** San Pedro
- **Bizilagunak:** Josefa Ugarteburu, 68 urte eta J. Jose Ibañez de Garaio, 60 urte.
- **Lur hedadura:** 17 hektarea.
- **Ganadua:** Ez dute.
- **Esplotazioa:** Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin hitzarmena sinatuta dauka eta barnetegi bezala funtzionatzen du eta asteburuetan jatetxea da.



Ibilbidea

- **1** Soraluzetik Bergararako irteeran dagoen Errekalde kalearen bukatatik abiatuko gara. Bariantean sartu gabe, eskuineko alde hartu eta etxeblokeetatik ehun metrora bidegurutze bat ikusiko dugu.
- **2** Bidegurutzean ezkerredera joko dugu. Bariantearen azpitik pasatuz, igotzen hasiko gara.
- **3** Kilometro erdira gutxi gorabehera, Salogoen-gaineko baserri ondolik pasako gara eta ondoren pistari jarraituko diogu, sigi-saga batzuk eginez.
- **4** Aurreko gunetik 500 metrora bidegurutze batera ailegatu eta eskuineko bidea hartuko dugu.
- **5** 300 metrora beste bidegurutze bat aurkituko dugu eta bertan eskuineko bidea hartuko dugu berriz ere. Pista horretan gora segiko dugu.
- **6** Kilometro erdi pa-

satxo egin ondoren, beste bidegurutze batean ezkerreko bidea hartuko dugu.

■ **7** 500 metro aurrerago beste bidegurutze bat dugu. Eskuineko bidea hartu eta...

■ **8** 200 metro gorago, Untzuetagainekoa baserria inguratzen duten landak ditugu, ikusmira zoragarria eskaintzen dutenak. Bertatik Kortazar alde ikus dezakegu.

■ **9** Untzuetagainekoa baserritik 100 metrora dagoen bidegurutzean ezkerredera joko dugu.

■ **10** 100 metro ingurura beste bidegurutze bat ikusiko dugu eta bertan eskumako bideari jarraituko diogu.

■ **11** Berehala helduko gara argigunera eta eskuma aldean Krabelin-aitzen gailurra ikusiko dugu. Minutu gutxitan helduko gara bertara.

Ibilbide gehiena zuhaitz artean da, gerizpe atsegin baten artean.

Kontuan izatekoak

A. Abiaburuan, ibilbidea alde batera utzita, bariantantz jo eta eskuman dagoen torlojotegi osteko eskumako bidetik jarraitzen badugu, Salogoenazpi baserria iritsiko gara. Blasoidun etxe hau oin errektangularrekoa da eta bi isuritako teilatua du. Bi etxebizitzatan banatua dago luzetarako suhezi batez. Ezkerreko etxebizitzak bi solairu ditu eta eskumakoak lau. Eskantzudun arlangaitzezko murruek ditu eta arlanduzko irudi batzuk. Eskuineko albo-fatxadan gezileihoak eta harrizko armari handi bat ditu. Batzuek diotenez, Kristobal Kolonen jaiotetxea izan omen zen.

B. Salogoen-gainekoa baserria igoeraren hasieran dagoen baserri polita da eta hortik aurrera ibilbidea zuhaitzi handien artean da.

Iturria: Deba Deheko gida turistikoa.

Luis Conde 24 urteko gazte elgoibartarra da. Injinerutza elektronikoa ikasketak egin berri ditu Eibarko Unibertsitate Laboralean. Orain dela pare bat aste, Kutxak promozioa onenei ematen dien saria jaso zuen. Gaur egun GER enpresan ari da lanean. Berak esan digunez, hilabeteko epean hiru lan eskaintza izan zituen. Pribilejio bat, kontuan izanik gaur egungo lan egoera zein den. Ezagutu dezagun Luis Conde.

"Hilabeteko epean 3 lan eskaintza izan nituen"

- Armerian ibili zinen, ez?

- Bai. 14 urte nituenean ez nuen batere garbi zer ikasi nahi nuen. Armerian hasi nintzen eta ez naiz batere damutzen. Amaitzean, ez nuen lanean hasteko gogo ez eta aukera gehiegirik eta Unibertsitate Laboralean injinerutza elektronikoa ikastea erabaki nuen.

- Lehenengo urtea errepi-katu egin omen zenuen.

- Bai, oso galduta ibili nintzen. Ez nekien zeri nondik heldu, azterketak zein motakoak izango ziren, zer galdetuko zuten... Zoramena izan zen eta ikasgai asko suspenditu nituen. Halere, bigarren urtetik aurrera dena aldatu zen eta gauzak askoz hobeto ateratzen hasi ziren.

- Askok ikasi behar izan duzu?

- Batez ere gauzak ulertu egin behar dira. Ez da, esaterako, historia ikastea bezala, totxo izugarri handia eta orduak eta orduak teoria ikasten. Gauzak eta kontzeptuak ondo ulertzean oinarritzen zen da, asko pentsatu behar duzu.

- Ikastea gustatzen al zaizu?

- Batere ez! Ez ikastea ezta matematikak ere. Baina oso garbi neukan ikasketak ondo eta ahalik eta azkarren amaitu nahi nituela eta horretarako nahiago nuela denbora ondo antolatu eta gano-raz ikastea. Sari hau jaso dudala irakurtzean jende askok pentsatuko zuen "enpolloi tipikoa" naizela baina ziur naiz nire ikaskideak ere harritu egin direla saria eman didatela jakin dutenean.

- Zergatik diozu hori?

- Ni baino ikasle askoz hobeak zirenak bazeuden gelan, urte osoan ia ateratzen ez zirenak. Nik pirak egiten nituen, karrerak irauin zuen urte guztietan ostiral gauean kalera ateratzen nintzen eta larunbat gehienetan ere, azterketa garaian izan ezik. Disziplinatua izan naiz, hori bai. Etxean, telebista ez nuen ikusten, ikasi egiten nuen. Nahiago nuen hilabete ikasten egotea eta dena aprobatazea uda osoa ikasten egotea baino. Helburua ez zen nota onak ateratzea, aprobatazea baizik. Ez nuen nahi urte mordo bat egitea ikasketak amaitu bitartean. Zentzu horretan ikasle saiatua izan naizela uste dut.

- Zure apunteak famatuak direla uste dut.

- Potentzia karrerako ikasgaiarik zailena zen. Nik asko landu nuen eta nota ona etara, ez dakit 8a edo 9a. Nire apunteen fotokopiak jende askok ditu. Sekula ez dut pegarik ipini alde horretatik. Nire gelan bazeuden euren apunteak inondik inora lagatzen ez zutenak. Konpetentzia handia zegoen.


- Saria ez zenuen espero, beraz.

- Ez nuen saria ezagutu ere egiten! Etxera deitu zidatenean neu izan nintzen gehien harritu zena. Ilusioa egiten du.

- Lana erraz topatu duzu, ez?

- Bai. Ikasketak eta proiektua amaitu eta lan bila hasi nintzen. Enpresaz enpresa curriculum-ak banatu, egunkarietako iragarkiei erantzun... Hilabeteko epean hiru lan eskaintza izan nituen. Oso gustura nago.

LUIS CONDE



●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Daniel Vargas Serantes, (Urtarrilak 3)
- Nerea Deagra de Sousa, (Urtarrilak 4)
- Andrea Jimenez Rodriguez, (Urtarrilak 5)
- Ane Gallardo Gabiola, (Urtarrilak 6)
- Iñigo Aiesta Oñederra, (Urtarrilak 12)
- Ibai Galarza Arrese, (Urtarrilak 14)
- Maialen Etxeberria Aranguena, (Urtarrilak 14)
- Josu eta Leire Rodriguez de Gabriel, (Urtarrilak 16)
- Jose Miguel Martin Prieto, (Urtarrilak 25)
- Koldo Gómez Beitia, (Urtarrilak 31)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Manuel Solozabal Arregi, 63 urte (Urtarrilak 1)
- Ignacio Kortabitarte Maguregi, 86 urte, (Urtarrilak 4)
- Maria Barbara Arriola Albizu, 77 urte, (Urtarrilak 12)
- Luis Linero Martin, 62 urte (Urtarrilak 15)
- Isidro San Martin, 71 urte (Urtarrilak 18)
- Alejandro González Rueda, 97 urte (Urtarrilak 24)
- Maria De los Bueis Sanchez, 104 urte (Urtarrilak 28)
- Jose Antonio Barandiaran Barandiaran, 94 urte (Urtarrilak 28)

Begoña Perez Hermetxeo "La Bermeana"

(1931-1979)



- 1931ko urtarrilaren 9an jaio zen Zornotzan, Astepe auzoan.
- Lehen ikasketak Zornotzan egin zituen, Astepe ez baitzegoen eskolarik.
- 1942an, 11 urterekin, familia osoa Elgoibarre-
ra etorri zen bizitzera, bere aita San Pedroko fa-
brikan lanean hasi zelako. Bere amak, "La Ber-
meana" ezizenez ezaguna zenak, arrain salmen-
tan jarraitu zuen, eta berak lagundu egiten zion.
- 15 urterekin Bermeora trenez joaten zen arrai-
na eroatera, gero amarekin Elgoibarren saltzeko.
- Urte batzuk pasatu zirenean, Oñatin arrain
salmentarako postu bat eta Arrasaten arran-
degi batzuk erosi zituen.
- Igandero Elgoibarko Bandarekin Plaza
Handian izaten zen dantzaldian Antonio Gu-
rrutxaga ezagutu zuen. 30 urterekin ezkondu
zen, eta 4 seme-alaba izan zituzten.
- Geroago arrain salmentan maiorista egin
zen, lehenengo Atxurin, eta gero Basaurin egi-
ten zuten "Mercabilbao"n postu bat hartuz.
Erosketak egiteko Vigora joan eta handik Es-
tatu guztira arraina saltzen hasi zen.
- Beste Estatu batzuekin ere merkatal harre-
manak eduki zituen, euren herritik arraina in-
portatuz.
- Garai haietan, bera izan zen lehen emakume
maiorista arrain negozioan. Bere adore, mer-
katal ikuspegi aurreratua eta izaera gogorra-
rengatik, gizonen munduan sartzea lortu zuen.
- Vigoko maioristek, maitasun osoz Begoña
"la vasquita" goitizenez deitzen zioten.
- Emakume oso estimatua zen, langilea,
alaia, jatorra, borondate handikoa eta beti ze-
goen laguntzeko prest.
- 1979ko ekainaren 15ean Vigon zegoela gai-
xotu eta azaroaren 15ean hil zen.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa Klara, 16 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (biltegia) 74 13 27 (etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (mobila) 908 77 07 01



Argazki hau **Ana Garaterena** da. 1928an, Madalako Milagrosako eskolakoek San Isidrorra (Madarixatik gora) egin zuten irteera batean ateratakoa da. Jakin badakigu, eskola honetakoek urtero egiten zutela txangoren bat mendi aldera. Izen-abizenak ematen hasi

aurretik, erreparatu ezazue neskatoek daramaten jantzi eta txapelei. Bitxia da baita ere, mojen janzkera. Erretratuan agertzen diren neskato guztiak identifikatzea ezinezkoa izan bada ere, gehienek izenak jakitea lortu du Ana Garatek bati eta besteari galdetuz. Hona hemen zein diren:

Atzetik hasita, ezkerretik eskumara: **Ana Garate, Digna Lasa, Teodora Arrieta, Angelines Anton, Sor Ana Azpeitia, (...), Dominica Agirregomezkorta, M. Carmen Azpiazu, Angeles Arozena, Sor Maria Vidal, Isa-**

bel García, Sabina Gararte, Carmen Zubizarreta, Blanca Alvarez eta Sor Basilisa.

Bigarren ilaran: **Sabina Muguruza, Vicenta Laskurain, Felisa Garate, Maria Iriondo, Juanita Etxeberria, Angelita (Leruntxiki), Petra Agirregomezkorta, Concepción Goiogana, Maria Arozena, Julia Zubiaurre, Victoria Mugerza, Gregoria Elkoro-Iribe, Juanita Artetxe eta Maritxu Osoro.**

Hirugarren ilaran: **Amparo Peral, Ignacia Alkorta, Rosario Garate, Mertxe (Leruntxiki), Miren Zubizarreta, Maria Garate, Eugenia Etxaniz, Benita Intxausti, Maria eta Ventura Agirregomezkorta.**

Laugarren ilaran: **Victoria González, Manolita Ortiz, Rosa Aiesta, Maritxu Garate, Maria Andresa eta Vicenta Ezenarro bikiak, hauen atzean Miren Etxeberria, (...), Celia Uria, Conchita Agote, Felipa Iraegi eta Julita Agirregomezkorta.**

EUSKO JAURLARITZA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Otaola hiribidea, 29 EIBAR

**1997/98 KURTSORAKO
MATRIKULA LIBREA**

Sobre jasotzea otsailaren 9tik 28ra izango da.
NANA BEHARREZKOA DA
Informazio gehiago: 20 06 18

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal




URKIDI

**AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGURUAK**

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
74 18 91



"Kontrakuak onak diazenian asko ikasten da"



Mikel Artola

- **Adina:** 22
- **Beste kirolik gogoko?** Udan, mendixa eta bizikleta
- **Zaletasunak:** Irakurtzea.
- **Zein da zure garaiera?** 1,89

- **Non jokatzen duzu saskibaloian gaur egun?** - Bergaran ari naiz jokatzen. Abenduan hasi nitzan entrenatzen eta oin bertan jokatzen dot. Lau partidu jokatu ditxugu eta oin lelengo fasia amaitzen da. Seguruen igoerarako klasifikauko gera. Igoerian beste ligila moduko bat dao eta segun beste ekipuak zelakuak dian, izan leike igotzeko aukeria eukitzia.

- **Aurretik Elgoibarren jokatu zenuen.**
- Bai. Elgoibarko Saskibaloia Taldea oin dala 3 urte sortu zan eta hasieratik jokatu izan dot. Bergarako taldea bi kategorixa gorao dao. Bizkaia, Araba, Nafarroa, Gipuzkoa eta Errioxakuen kontra jokatzen dou.

- **Zer dela eta erabaki zenuen aldatzea?**
- Elgoibarkuek komentau ziaten Bergaran bazauala ekipo bat kategorixa altuauan. Gauza berrixak probatzeko gogua nakan.

- **Alderik igartzen duzu?** - Alde haundi-xa ez baina aldia badao. Abiaduran batez ere. Orokorrian jokalarixak eta jokaldixak ere azkarrauk izaten dira. Defensak, adibidez, gogorruak dia. Ni Bergaran gustora nao, giro majua dao. Gainera, Bergara aurten hasi da kategorixa autonomikuan eta hala ere igoerako fasia jokatu bihar dou.

- **Talde ona da, beraz.** - Bueno, nik esango nuke ekipua bloke bat bezela dala. Ez daoz bat edo bi bestien gainetik destakatzten dianak, talde moduan jokatzen da. Nere ustez horregatik dabil ondo ekipua.

- **Beste diferentziarik igarri duzu?**
- Han entrenatzaile bat dakagu eta gauzak askoz serixuauak diala esan leike. Asko

igartzen da. Hala ere, oso inportantia izan zan Elgoibarren, oin dala hiru urte, pauso handi bat eman eta ekipua sortzia.

- **Zer falta zaio Elgoibarko saskibaloari?** - Nere ustez beheraoko kategorixian gaztien taldea eukitzia, bestela ez dao aurrera eitxerik. Hala ere, Elgoibarko saskibaloari laguntza falta zaio.

- **Eskubaloian ere jokatu izan duzu.**
- Neri beti gustau izan jata saskibaloia baina Elgoibarren ekiporik ez zaualako hasi nitzan eskubaloian.

- **Zein lekutan jokatzen duzu saskibaloian?** - Hegalian edo barrutik. Kanpotik jokatzeo abiadura da inportantiena, azkarra izatia, eta barrutik jokatzeo, alturia eta indarra eukitzia.

- **Alturarik gabe joka al daiteke saskibaloian?** - Bai, "txikixak" oso inportantiak dia abiadura ematen dabelako.

- **Beste txapelketaren batean hartzen duzu parte?** - Unibertsidadeko ekipuan jokatzen dot Donostiako kanpusian. Kanpusen arteko txapelketa izaten da eta partidu bakarra jokatzen da. Lelengo urtian beldur pixkat ere eman zian ze kriston nibela zauala ikusi naban. Ni nitzan gaztiena eta kategorixa bajueneko ekipo batian jokatzen zabana. Oso altuak ere bazaozen. Baina zure ekipokuak eta, batez ere, kontrarixuak onak diazenian, benetan ikasten dozula konturatzen zera. Hor igartzen da belozidadia, askoz azkarrauk diala. Zuk kanasta bat sartzeko bi mugimendu ein bihar baditxuzu, eurak igual batian ein dezakete.

ESKOLARTEKO KIROLAK

AGENDA (Otsailak 7, larunbata)

ARETO FUTBOLA

- **Aleb. mut. (Herri Eskolan)** ■
10:30 Mendaro B - Ikas Gol
11:15 Ikas Espabidubi - Pilar All Star
12:00 Ikas Inpernu - Herri Boomerang

- **Alebin nesk. (Mintxetan)** ■
9:45 Ikas Laino - Pilar Girls
10:30 Ikas Trumoi - Pilar Kas
11:15 Ikas Txingor - Herri Argi

SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Ikastolan)** ■
9:45 Ikas Botilla - Pilar Ajax
10:30 Ikas Axelko - Ikas Otsokoak
- **Infantil neskak (Ikastolan)** ■
11:15 Blablatarrak - Ikas Trans
12:00 Ikas Gorribeltz - Pilar Mix

- **3X3 Saskibaloia (Pilar ikast.)** ■
11:00 Pilar Boys A - Pilar Boys B
11:45 Basati A - Basati B

ESKUBALOIA

- **Benj. mutilak (Kiroldagian)** ■
10:00 Ikas Tximista - Mendaro A
10:30 Pilar Bulls - Ikas Bulls
11:30 Ikas Bihurri - Herri Otsোক
12:30 Ikas Gorri - Pilar Lakasitos

- **Benj. nesk. (Kiroldagian)** ■
9:30 Ikas Bizkor - Pilar Usoak
11:00 Ikas Hartz - Ikas Ortzadar
12:00 Pilar Txiki - Ikas Beleak

● Lehendabiziko partiduak Kiroldagiko kantxan

Aurreko astean aurreratu genuen bezala, Olaizaga Kiroldagiko kantxa otsailaren 15ean berrinauguratuko da. Egun horretan Elgorriaga Bidasoa eta Arrate eskubaloia taldeen arteko partidua izango da. Hala ere, gaur, ostirala, Elgoibarko areto futboleko lehen mailako eta maila autonomikoko taldeek ligako partiduak jokatuko dituzte bertan. Azken hilabetean berritze lanak egin dituzte kantxan. Hormak margotzeaz gain, zolu sintetiko berria jarri dute. Zolu berriari esker, tenisean jokatu ahal izango da bertan baina frontoi izateari utziko dio. Hortaz, ezingo da pilota partidurik jokatu. Izan ere, pilota partidu guztiak aspalditik jokatzen dira Ikastolako frontoian.

Maite Barruetabeña 'Pirena' txapelketan ari da parte hartzen

Egunotan Pinioetan egiten ari da Husky txakurren txapelketa

Maite Barruetabeña elgoibartarra Pirinioetan dabil egunotan Pirena deritzon txapelketan parte hartzen. Txapelketa honetan Husky txakurrek eraman-dako trineoekin trabesiak egiten dira mendietan zehar. Etapa ezberdinak izaten dira, kilometro askotakoak. Aurten lehen aldiz, txakurren gidari modura hartu du parte Maitek. Orain arte Maiteren senarra, Fernando Ruiz izan da txapelketetan gidari modura aritu dena, eta Maite, laguntzailea izan da. Pirena txapelketan "Kar" izeneko modalitatean aritzen dira partehartzaileak. Txakurrak trineo bati lotuta egoten dira eta gidari edo "musher" aren agindupean egiten dute korrika. Eski

gaineko modalitate honetan 12 txakurrek har dezakete parte gehienez. Astelehenean, hilak 9, Pirinioetatik Elgoibarrera itzuliko da Maite Barruetabeña eta berarekin luze hitz egiteko aukera izango du.

Husky-ekin liliratuta

Maite Barruetabeña eta bere senar Fernando Ruizek duela hiru bat urte izan zuten Husky txakurrekin lehen kontaktoa. Txakur bat erosi eta handik denbora batera, beste bat eskuratu zuten. Hirugarren bat ere ekarri zuten eta horrela, poliki-poliki, konpetizioaren munduan sartu ziren buru-belarri. Txakur hauekin erabateko lilura sentitu zuen bikoteak. Hortaz, beste urrats bat emat

tea erabaki zuten. Sigma auzoan lokal bat erosi eta txakur haztegia sortu zuten. Iaz txapelketa ezberdinetan hartu zuten parte, horien artean Pirena, Espainiko Husky txakurren txapelketa etab.



● Eskolarteko Atletismoa Mintxetan

Eskolarteko Atletismo frogak jokatu ziren pasa den zapatuan Mintxetako Udal pistan. Alebin eta infantil kategorietako atletismo lasterketan, pisu jaurtiketan eta altura jauzian hartu zuten parte San Bartolome ikastola, Pilar eta Mendaroko San Jose Ikastolako neska-mutilek. Karen Baztarrikak pisu jaurtiketan lehen postua lortu zuen. Maite Linares bigarrena sailkatu zen 60 m. hesietan eta Maider Díez bosgarrena. Erreleboetan, berriz, Ikastolakoak hirugarren geratu ziren. Luzera jauzian, Iker Arrillaga, Aitor Mugerza eta Ruben Mancebo sailkatu ziren lehen hiru postuetan. Pisu jaurtiketan, Aitzol Urain, Imanol Etxeberria eta Mikel Mugerza eta 60 m. hesietan, Iker Arrillaga, Ivan Conde eta Aitor Agirrebeña. Erreleboetan Pilar ikastetxeak txapeldunak izan ziren eta mendarotarrak bigarrenak. Infantiletan, Nuria Revueltaren bigarren postua 80m.tan, eta Ainara de Pedroren laugarren

postua 600 m.tan dira aipagarrienak.

Bestalde, joan den domekan, Oñatiko eskolarteko krosean parte hartu zuten Mintxeta Atletismo Taldeko neska-mutilek. Julen Merinok oso indartsu ari dela erakutsi zuen, bere kategorian, alebin mutiletan, hain zuzen, irabazi egin baitzuen. Alaitz Merino 3. sailkatu zen infantiletan. Hilaren 15ean Mintxetako korrikalariak Hernaniko XVI. Adarraga Memorialean hartuko dute parte.



EMAITZAK

Futbola

Haundi 1 - Torrelavega 2
 Loiolako 3 - Elgoibar 0 (2.erreg.)
 Eibartarrak 0 - Pedrusko 2 (2. erreg.)
 Elgoibar 0 - Aretxabaleta 0 (E. L. Jub.)
 Usurbil 0 - Elgoibar 1 (1. jub.)
 Elgoibar 4 - Aldapetarrak 2 (Kad.)
 Bergara 1 - Elgoibar 0 (Oho. inf.)
 Añorga 5 - Elgoibar 0 (Neskak)

Eskubaloia

Zestoa 2 - Unceta Elg. 39 (Kad. nes.)
 Pneumax Elg 21 - Ereintza 24 (Kad. mut.)
 Leizaran 12 - Pagoaga Elg. 16 (Jub. nes.)
 Tecnomeca Elg. 31 - Ereintza 20 (Jub. mut.)
 Elgoibar 22 - Ormaiztegi 30 (Seniorrak)

Areto futbola

Ondarre 4 - Elgoibar F.S. 4 (1. maila)
 J. P. Pasajes 1 - Elgoibar 5 (Auton.)

Idarraga Kafeak I. Saria

C.D.ko jokalariregularrena 97/98

| Jokalaria | Puntuak |
|----------------------------|---------|
| 1- Miguel Díaz | 29 |
| 2- Gorka Guarrotxena | 25 |
| 3- Eneko Barrenetxea | 21 |
| 4- Gaizka Lazarobaster | 19 |
| 5- Ander Iruretagoiena | 19 |
| 6- Iker Atxabal | 18 |
| 7- Jabier Gurrutxaga | 16 |
| 8- Joseba Igartua | 15 |
| 9- Karlos Madina | 15 |
| 10- Koldo Agirregomezkorta | 13 |
| 11- Unai Aranburu | 10 |
| 12- Xabier Alonso | 9 |
| 13- Jon Argoitia | 9 |
| 14- Igor Prieto | 6 |
| 15- Mikel Elkoro-Irribere | 4 |
| 16- Aitor Trebiño | 4 |
| 17- Aiert Zinkunegi | 4 |
| 18- Mitxel Badiola | 4 |

AGENDA

Futbola, Mintxetan


Larunbata, 7
 12:15 Elgoibar - Orioko (1. jub.)
 15:00 Pedrusko - Celtic Bi (2.erreg.)
 16:45 Elgoibar - Intxaurren (2.erreg.)
Igandea, 8
 10:30 Elgoibar - Urola (Alebinak)
 12:15 Elgoibar - Erreal (Inf.)
 16:15 Elgoibar - Oiarzun (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 7
 12:15 Pagoaga Elg. - Hernani (Jub. nes.)

Areto futbola, Kiroldegian

Ostirala, 5
 22:10 Elgoibar F. S. - Axular (1. maila)
 23:10 Elgoibar F. S. - Inter Intxaurren (Auton.)



Dedukzio istorio bikaina

Ezagutu genuen aurretiaz Elkar argitaletxearen Branka sailean Edgar Allan Poeren intrigazko istorio bat, "Urre-zomorroa" deitutakoa hain zuzen ere. Bada, oraingo hau ere, "Rue Morgueko hilketak" delakoa ildo berekoa dugu, intrigazko generokoa alegia.

Honako liburu honetan idazle bostondarrak analisiaren, dedukzio lanaren ariketa paregabea eskaintzen digu. Poek, liburuaren sarreran, analisiaren, dedukzioaren goraipamena egiten du eta jarraian kasu bat aurkezten du dedukzio lan hori praktikan jartzeko. Zehazki, idazle iparramerikarrak aurkezten digun kasua Rue Morgueko hilketena da. Kale horretan, era misteriotsuan bi emakumeren hilketak gertatu da, madame L'Españaye eta alabarena. Beraz, Dupin jaunak (Poek ikertzaile lanetan jarriko duen pertsonaia prestua) hor edukiko du bere trebezia azaltzeko aukera.

Behin aurkezpena eginda, egileak maisuki darama errelatoaren haria. Istorioa bikain garatzen du, zehaztasun handiz kontatuz. Horrela, une oro kasuaren nondik-norakoaz eta ikerketen garapenez jakitun gara. Azkenik, jakina, guztiaren berri jakingo dugu: nor izan zen hiltzailea eta nola burutu zen zehatz-mehatz krimen bel-durgarria.

Jon Eugi

211 lagunek hartu dute parte Elgoibarko Izarra Idaz-Lehiaketetan

Elgoibarko Izarrak urtero antolatzen duen Idaz-Lehiaketetan parte hartu duten lan sarituak ezagutzera eman ziren joan den ostiral iluntzean. Kultur Etxeko hitzaldi gelan egin zen sari banaketa ekitaldia. Saioa girotze eta alaitze aldera, Bergarako Oihulari Klown taldeko Idoia Azkaratek zenbait ipuin kontatu zituen. Lehendabizi "Etxegiña" bertso pape- ren sailean irabazle eta bigarren geratu direnei eman zitzaizen saria. Hauen ostean, prosa ataleko lanen izenburuak jakin ziren eta hauen egileak saria jaso zuten. Guztira 211 lan aurkeztu dira aurten, 155 bertso pa-

peretan, eta 56 ipuinen atalean. Bertsoak aukeratzeko lanetan, German Meabebaste- rretxea eta Izaskun Elizburu aritu ziren eta ipuinen epaimahaikoak Jasone Osoro eta Itziar Agirregomezkorta izan ziren.

Bertsoetan Olatz Urbizu, Uxue Alberdi eta Iñigo Izagirrerren lanak izan ziren irabazleak eta prosan, berriz, Uxue Alberdi, Miren Guilló eta Unai Villenarenak.

Aipagarria da Uxue Alberdik bai bertsoetan bai prosan irabazi dituela bi lehenengo sari. Unai Villenak, berriz, iaz bere kategorian irabazi zuen eta aurten ere, bere lana onena izan da.

PROSA

BERTSOAK

A MAILA

(DBHko 1-2 mailak)

1. SARIA:

txapela eta 10.000 pta.

Uxue Alberdi


"Aitonarekin solasean"

2. SARIA:

5.000 pta.

Maite Uriarte

"Ez zaitut sekula ahaztuko"



B MAILA

(DBHko 1-2 mailak)

1. SARIA:

txapela eta 10.000 pta.

Uxue Alberdi

"Txikitako hura faltan"

2. SARIA: 3.000 pta.

Ainara De Pedro,

"Lagutnasuna"

eta Olatz Galarza,

"Ume berria"

B MAILA

(DBHko 3-4 mailak)

1. SARIA:

txapela eta 20.000 pta.

Miren Guilló

"Azkarateko itzalak"

2. SARIA:

15.000 pta.

Maite Solas

"Larrosaren edertasuna"



A MAILA

(LHko 5-6 mailak)

1. SARIA:

txapela eta 8.000 pta.

Olatz Urbizu

"Dentistarengana noa"

2. SARIA: 2.500 pta.

Mirian Lizarralde, "Futbola"

eta Ander Gerenabarrena,

"Bihotzaren begiak"

C MAILA

(LOGSEko 1-2 mailak)

1. SARIA:

txapela eta 30.000 pta.

Unai Villena


"Beste lekuetan ere..."

2. SARIA:

20.000 pta.

Ihintza Elsanaar

"Zerua eta ni"



C MAILA

(Ertainak 14-20 urte)

1. SARIA:

txapela eta 15.000 pta.

Iñigo Izagirre

"Elgoibarko Gaztetxea"

2. SARIA:

12.000 pta.

Josu Urain


"Elgoibarko Gaztetxea"



San Juan Bosco, jai egun konpletoa

J

oan den ostiraleran, urtarrilak 30, San Juan Bosko eguna ospatu zuten Herri Institutuan. Urtero bezala, klase orduak alde batera laga eta jai eguna denez, hainbat eta hainbat ekintza izan zituzten. Goizean goiz lasterketarekin hasi ziren, goitibeherak ere izan zituzten, futbol partiduak, ohikoa den tortila txapelketa, antzerkia ere egin zuten ikasleek... Egun osoa pasa zuten jai-giroan, lagunartean ongi baino hobeto ibiliz eta ahalik eta gehien eprobetxatuz. Izan ere, Gabonetako oporren ostean izaten den atsedenez guztiek, bai irakasle baita ikasleek ere disfrutatzen baitute. Hurrengo urtera arte egon beharko dute zain berriz ere San Juan Bosko eguna behar bezala antolatu eta juerga majo bat eginez disfrutatzeko. Argazkiak ateratzen Ainhoa Lendinezek kolaboratu du. Mila esker BARRENkoen partez.



**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

6

ostirala

**19:00 GAZTE
 ASANBLADAren
 BILERA**
 Gaztetxean

22:30 ANTZERKIA
 Antzezlan: "La espera"
 (gaztelaniaz)
 Antzezlea: Oihulari
 Klonw taldeko Virginia
 Imaz
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Haizea
 Emakume Taldea

8

igandea

**11:00 EIBARKO
 BANDAREN KALEJIRA**

**12:30 EIBARKO
 BANDAREN
 KONTZERTUA**
 Herriko Antzokian

19:30-22:15 ZINEA
 "El pacificador"

12

osteguna

**20:30 OTARI
 BURUZKO BILERA**
 Kultur Etxean

22:15 ZINE KLUBA
 "Western"
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine Kluba

7

larunbata

**GOIZEAN, SANTA
 AGEDAKO KORON
 KALEJIRA**

18:30 KONTZERTUA
 "Storbais"
 Gaztetxean

19:30-22:15 ZINEA
 "El pacificador"

9

astelehena

19:30-22:15 ZINEA
 "El pacificador"

13

ostirala

22:15 ZINEA
 "In and out"

ZINEA



Zuzendaria: Mimi Leder
Antzezleak: George Clooney, Nicole Kidman, Armin Mueller-Stahl

El pacificador

Errusian, bidaiari mordoa dituen tren batek, eta Star desarme hitzarmena betetze aldera, desaktibatzeke prest dauden arma nuklearrez beteta dagoen beste tren batek, topo egiten dute eta 75 kilotoiko arma batek errusiako arn bat suntsitzen du. Etxe Zuriko aditu batek arma nuklearren legez kanpoko komertzioaren atzetik dabilen pertsona harrapatu beharko du.



● Mozorro lehiaketa Jubilatu Etxean

Hilaren 24an, asteartea, ihauterietako mozorro lehiaketa izango da Jubilatu Etxean Gelatxo orkestak alaituta. Mozorro onenen artean bi sari banatuko dira. Beraz, den-denak mozorrotuta joan daitezen eskatu nahi du zuzendaritzak.

Bestalde, datorren martxorako, Benidormen 15 eguneko oporraldia antolatu du Jubilatu Etxeak. Martxoaren 14an izango da irteera eta izena emateko epea hilabete lehenago, hau da, hil honen 14an amaituko da. Izena emateko goizeko 10etatik 12etara bitartean Jubilatuetatik pasatu.

● OTA jartzeari buruzko bilera

OTA jartzeko dagoen asmoa dela eta, herri erdiko auzokideek bilera baterako deia egin dute datorren ostegunerako, hilak 10. OTAren gaiak herriko auzokide eta dendariei eragiten dienez eta denen iritzia eta kezka jasotzea garrantzitsua denez, ahalik eta herritar gehienak bilerara joatea komeni dela azpimarratu nahi dute antolatzaileek. Bilera Kultur Etxean izango da iluntzeko 20:30ean.

● Eibarko Bandaren kalejira eta kontzertua

Domekan, hilak 8, Eibarko Bandaren bisita izango dugu. Goizeko 11:00etan kalejira egingo dute eta eguerdiko 12:30ean kontzertua Herriko Antzokian. Egitaraua honako hau da: "Puenteareas" Soutilloren pasodoblea, "La boutique Fantasque" Rossiniren selekzioa, Chapí maisuaren "La Bruja", "Mari-Celi" polka eta Bersteinen "West Side Story" pieza ezaguna.

● Storbais taldea Gartetxean

Zapatuan, hilak 7, kontzertua egongo da Gartetxean. Oraingoan 'Storbais' taldeak joko du baina kontzertua ez da beste batzuetan bezala, gauean izango, arratsaldeko 18:30ean baizik. Sarrerarik ez da kobratuko.

T R A N D A K

FARMAZIAK

| | Egunez | Gaez |
|----|------------|----------------------------------|
| 7 | Yudego | Yudego |
| 8 | Yudego | Yudego |
| 9 | Zabaleta | Zabaleta |
| 10 | Etxeberria | Etxeberria (Errosario kalean) |
| 11 | Escala | Escala |
| 12 | Bidasolo | Bidasolo |
| 13 | Etxeberria | Etxeberria (Santa Ana kalean) |

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

8 igandea Idarraga

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: M. Poirier.

Antzezleak: Sergi López, Sacha Burdo, Elisabeth Vitale.

Western (frantzia 1997)

Frantziako iparraldean, Britainiako lurretan hain zuzen, gertatzen den errepi-deko filme bat da. Ilusioa galdu duten injineru katalan bat eta errusiar gazte baten arteko bidaia azaltzen digu. Errusiarrek bere herrialdetik emigratu beharra dauka bere jaioterrian etorkizunik ikusten ez duelako. Bien arteko adiskidetasun eta elkartasunaren bitartez, gizakiok dugun amets berriak egiteko beharraz ohartuko da ikuslea.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta goizeko 7:45etik 11:00etara umea zaintzeko. ☎ **74 18 70** (21:00etatik aurrera)

◆ Asteburu eta jaietarako emakumea behar da bokadiloak egiten esperientziarekin eta egunero taberna garbitzeko aukerarekin. ☎ **74 37 71**

◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ **74 45 87**

◆ ESKAERA ◆

◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ **74 23 90**

◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ **74 21 44** (Ana Isabel)

◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ **74 43 31** (Agurtzane)

◆ Eskopetero-armeroa eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko ☎ **17 47 70**

◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **17 47 70**

◆ Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsu edo enkofratzaile lanak egiteko. ☎ **17 47 70**

◆ Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. ☎ **74 15 09** (Victoria)

Partikularrak

◆ Kimika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ **74 44 45** (Arrate)

◆ Latin eta literatura klaseak emateko irakaslea behar da. Curriculum-a bidali **Bergarako 245 postakutxara**.

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ **75 50 35** (Imanol)

◆ Ingeles klase partikularrak ematen dira. ☎ **74 07 86** (Nerea)

◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ **74 41 16/ 907 15 30 62**

◆ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ **74 12 05** (Gauze)

Garajeak

◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ **74 22 00** (Gauko 21:00etatik aurrera)

◆ Garajea salgai Urasandin (5 eta 7 zenbakien azpian). ☎ **74 13 07**

◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ **74 12 04**

◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ **74 13 82**

◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ **74 27 89**

◆ Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ☎ **74 04 34**

◆ Garaje itxi bat saltzen dut King-Kong-en. ☎ **76 17 95**

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Aukera. Samsung bideoa salgai, SV-60XK modelo. 4 kabezal, funtzioak pantailan, Eurokonektorea, LP eta SP, Index bidezko bilaketa, autotracking digitala eta esteroa. Urtebete baino gutxiago du. 30.000 pta. ☎ **74 02 09** (Alberto. 19:00etatik aurrera)

◆ Ordenadorerako mahaia saltzen da. Berria dago eta teklatuaren balda atera egin daiteke. ☎ **74 44 46** (goizez)

◆ Logela osoa eta salarako armarua saltzen dira. Merke. ☎ **74 36 83** (gauzez)

◆ 62 metro karratuko lokala alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an. ☎ **74 18 94/ 945 27 78 08**

◆ Pasiararako Country Bike bizi-kleta saltzen da. Gutxi erabilia. Berde iluna. Prezio onean. ☎ **74 41 45** (gauzez)

◆ Pentium 75, 16 MB RAM, 640 MB Disko gogorra, 3,5 disketera, CD ROM X4, inpresora, arratoia, Windows 95 eta Office 97 programekin salgai. ☎ **74 19 21**.

◆ Lau txakur salgai. Hilabete dute. ☎ **74 16 86** (Antonio)

◆ Solarium-a saltzen da prezio onean. ☎ **74 45 87**

◆ Kotxeak salgai: Lada Niva. Matrikula SS 8952 AH eta Seat Panda, SS 3368 N. Prezio onean. ☎ **74 03 75** (arratsaldeko 19:00etatik aurrera)

◆ Mendi trabesiako botak saltzen ditut. TR9 Nordika, 42 zenbakikoak. ☎ **75 16 80** (Gauze)

Etxebizitzak

◆ Jantzitako etxea salgai. ☎ **74 44 61**

◆ Etxea alokatzen dut Ubitarte plazan. ☎ **74 01 59**.

◆ Pisia salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m2 eta ganbara. ☎ **74 11 05**

◆ Etxea salgai Urasandin. 90 m2, 3 logela, sukaldea, 2 komun, ganbara eta 3 terrazatxo. Koketoa. ☎ **75 52 15**

◆ Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua. ☎ **908 57 95 89**

◆ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. ☎ **74 00 65**

Bestelakoak

◆ Liburutegian forro polar bat agertu da: Astore markakoa, urdina eta berdea. **Udaltzaingoa dago**.

◆ Urrezko katea galdu dut. Txapa bat dauka eta bertan 18-1-98 inizialak daude idatzita. ☎ **74 22 25**.

◆ Lore-dietetika denda traspasatzen da Berrizen atenditu ezin dugulako. Herrian dagoen bakarra da eta 11 urte daramatza martxan. Nahiago lore kontuetan esperientzia duen jendea bada. Dendako ordutegian deitu. ☎ **94 - 68 24 228**

◆ Kaixo! Euskara ikasteko gogo handia dut. Zuk ikasi nahi al duzu, bide batez, alemaniera nirekin? Noiz elkartuko gara? Deitu elkar ikusteko. Gramatika menperatzea eskatzen da. Maria Theresia **74 40 40** (egunez), **989 07 84 72** (gauko 9etatik aurrera)

◆ San Anton egunean eskiatzeko umeen txamarra gorria, marra beltz eta zuriekin, galdu nuen. ☎ **74 28 75** (Maria)

◆ Cáritasek tresilo bat hartuko luke. ☎ **74 15 09/ 74 12 57**

◆ Cáritasek sukaldea, labea eta garbigailua emango lituzke. ☎ **74 15 09/ 74 12 57**

◆ Solfeoko karpeta galdu dut. Koadernoetan Aritz Cerviño Gorostiza izena agertzen da. ☎ **74 12 69**

◆ Buztan beltza duen katu siamesa galdu nuen Pedro Mugerza inguruan. ☎ **74 17 87**

Agurrak

◆ Zorionak **Dori Sanchez**zi hilaren 5ean urteak bete zituelako. Jose Mari, Sonia, Aitor eta Indiren partez.

◆ Zorionak **amama Puriri** hilaren 3an hainbat urte bete zituelako. Familia osoaren partez eta batez ere Luckiren partez. Aupa amama!

◆ Zorionak **Amaia Fernandez**zi. Pizza bat jan dezala familia guztiarekin. Zein mutilek idatziko zuen mezua? Asma ezazu. Ikastola osoan galdetu eta esan zein mutil den. Zorionak!!! DBHko nesken eta mutilen partez.

◆ Zorionak **Arrixuri**. Belarritik tirakada eder bat hilaren 4an 11 urte bete zituelako. Ikastolako 5. mailako partez.



◆ Zorionak **Juanita Unanue** eta **Luis Mugerzari** hilaren 5ean urrezko eztaiak bete zituztelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Oskar Martinezi** gaur, ostirala, 11 urte bete dituelako. Guraso eta arreba Miriamen partez.

◆ Zorionak **Saray Rodriguez Sotari** hilaren 12an 4 urte bete dituelako. Familia osoaren partez. Zorionak baita ere Pilarreko DBHko 1. mailako nesken partez.



◆ Zorionak **Yo-landa Munini** igandean, hilak 8, urteak beteko dituelako. Gurasoen partez egun alaia igaro dezala.

◆ Zorionak **Peif!** Kafesnea bero-berro gordetzeko egingo dizugun oparia zure gustukoa izatea espero dugu. Lol, Cornejito, Txas, Maier, Txino, Iranzo, Tin eta Gi-Bi.



GREMIOAK

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Alumiñoa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Sahta Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN

Sukaldeak - atak - zoluak
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 74 04 40
☎ 907 74 04 40

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDEEK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

San Valentín

Gonbida ezazu zure bikotea gau zoragarri batetara

ARBOLETA
Trinidad, 1
Mendaro
Tel: 74 60 45

Menu berezia:

- Entremes hotz eta beroak
- Rapea laban erreta
- Etxeko gozoak



ATERPE
San Roke, 5
Tel: 74 25 95

BEREZITASUNA:

- Oilasko errea (Enkarguz eramateko ere bai)



ESTAZIO TABERNA
San Inazio, 9
Tel: 74 45 34

BEREZITASUNAK:

- Itxaropena erre-bueltoa
- Rapea laban, kabraroka, legatza eta bakailua
- Mazantini zezen buztana



GABI
Nafarroa enparantza
Tel: 74 12 30

BEREZITASUNAK:

- Entsalada hotz eta epelak
- Bertako okela
- Arraina
- Etxeko gozoak



HEMENDIK
Pedro Muguruza, 20
Tel: 74 25 00

BEREZITASUNAK:

- Erretakoak,
- Kazuelatxoak
- Olgarroa



HERRI GAIN
San Pedro, 4
Tel: 74 30 40

- Otarrainskak plantxan
- Solomilloa
- S. Balentin tarta
- Kafea eta kopa
- Cava botila
- 3.000 pta.

San Valentín menua



IBAI ONDO
Giza Eskubideen enparantza
Tel: 74 26 27

BEREZITASUNAK:

- Entsalada hotz eta epelak
- Bertako okela
- Arraina
- Etxeko gozoak



LANDA
Garagarza, 32
Mendaro
Tel: 74 60 28

SASOIKO BEREZITASUNAK:

- Angulak
- Legatza txanpaina erara



TXARRIDUNA
Ermuaranbide, 1
Tel: 74 04 50

Ihaurietako menua

- Itsaskien entsalada
- Onddoen ojaldea

- Piper beteak
- Rapea olio ozpinetan
- Solomilloa guarnizioarekin
- Almenar 98ko krintza
- Irati ardo gorria

